

TRANSMISIOA – INSTALAZIOA

Ene etxaldearen transmisioa kausitu : kide edo/eta arrahartzaile bat etxaldean errezibitu

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak etxalde bisita kolektibo bat antolatzen du berriz ere, erretreta hurbiltzen denean eta etxalde-transmisioaren problematika agertzen denean gogoeta zuzena eramaiten laguntzeko. Bisita honek erretreta hartu behar duten laborarien eta etxalde bat bilatzen dutenen arteko trukatzeko gune bat idekitzen du.

Otsailaren 1ean, asteart arratsaldean, 14.00-tan, Iholdi Landaiak bere atea idekiko ditu etxalde transmisioa gaiak hunkitzen dituen laborarier baita kontaktu bila dauden laborarigaiari.

Etxalde batean kide baten sarrarazteak anitz aldaketa eragiten ditu. Kaiet Barberarenak eta Daniel bere aitak haien lekukotasunak eskainiko dizkiete erretretadungai eta laborarigaiari.



Kaiet familiako etxaldean sartu da kide berri gisa. Xerri hazkuntza abiatu du, ardientzat arditegi berria eraiki...

Nola Danielek, Kaieten aitak, bere etxaldea aitzina joanaraziko du ? Nola egokituko ditu bere praktikak eta ideiak, etxaldea laster arrahartuko duen kide berri hau errezibitzeko ?

Egitaraua :

- Etxaldea uztekoa duten laborarien eta laborarigaien artean solasaldia
- Desmartxetaz eta laguntzetaz informazio emaita
- Memento goxo baten mentura, trukatzeko libreak parte hartzaileen artean

Bisita hau animatuko dute : Véronique Gelak EHLG-ko Transmisio-Instalazio animatzaileak eta Nadia Benesteau juristak.

Bisita huntan parte hartzeko izena emaita beharrezkoa da : 05 59 37 18 82